tisau-teila okerra kendu eta teila oker mekanikoa jarri zuten. Ohiturari jarraituz, horma-atal bakoitzean gurutze bat diseinatu da, bi koloretako teilez baliatuta.

Oro har, Erreitzu XVI. mendean eraikitako baserria da –garai horretakoa du behe-solairua–, eta XVIII. mendetik aurrera erabat berritu zen lehenengo solairutik gora.

rrado con entablado de madera. La cubierta fue restaurada el año 1989 eliminando la teja curva artesana y sustituyéndose por la teja curva mecánica. Siguiendo la tradición se ha diseñado una cruz en cada paño valiéndose de tejas de dos colores.

En conjunto Erreitzu es un edificio construido en el siglo XVI, época de la que mantiene la planta baja, y que fue completamente reconstruido de nuevo a partir de la primera a principios del siglo XVIII.

**3245**

AGINDUA, 2007ko maiatzaren 10ekoa, Kultura sailburuarena, Alkizako (Gipuzkoa) Lete baserria, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16. eta Estatutuaren 10.19. artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretan oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

2007ko martxoaren 1eko Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen Ebazpenaren bidez Alkizako (Gipuzkoa) Lete baserriak aurkezten zuen balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian Sartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Ebazpen hau 2007ko apirilaren 10eko 68. zk. duen EHAAn argitaratua izan zen.

Aipatutako espedientearen administrazio-tramitazioak espedientea jendaurrean jartzera eta interesdunei entzutera behartu zuen, aipatutako 7/1990 Legeko 17. eta 11.3. artikuluetan eta artikulu horiekin erlazionatutako beste xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Legeak agintzen duen izapideak bete ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu.

Hori guztia dela eta, aipaturiko Legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

**3245**

ORDEN de 10 de mayo de 2007, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe el Caserío Lete en Alkiza (Gipuzkoa) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural del caserío Lete en Alkiza (Gipuzkoa), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 1 de marzo de 2007, publicada en BOPV n.º 68, de 10 de abril, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública, durante el cual, también, se concedió audiencia a los interesados.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, no se han presentado alegaciones.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe del caserío Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.***– Alkizako (Gipuzkoa) Lete baserria Kultura Ondasun gisa, Monumentu izandapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea.

***Bigarrena.***– Euskal Kultura Ondarearen Legeak aurreikusten dituen ondorioetarako Sailkatutako Ondasunaren deskribapen formala egitea, agindu honen II. eranskinean agertzen den bezala eta I. eranskinean azaltzen den mugaketarekin bat etorriz.

***Hirugarrena.***– Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako Jabego Erregistroari Agindu honen berri ematea.

***Laugarrena.***– Alkizako Udalari bere hirigintza-araudia ondasun horrentzat egokitu dezan eskatzea Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoa betez.

***Bosgarrena.***– Espedienteko interesdunei, Alkizako Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Lurralde Antolamendu eta Sustapenerako Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari Agindu hau jakinaraztea.

***Seigarrena.***– Ondasuna Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzen duen Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Inskribatzeko den Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak.

***Bigarrena.***– Administrazio-bidea amaitzen duen Agindu honen aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Kultura sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean, Agindu hau argitaratzen edo jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 10a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

RESUELVO:

***Primero.***– Inscribir el Caserío Lete en Alkiza (Gipuzkoa), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

***Segundo.***– Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en el anexo II de la presente Orden.

***Tercero.***– Comunicar la resolución al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

***Cuarto.***– Instar al Ayuntamiento de Alkiza para que proceda a la protección de dicho inmueble contemplándolo en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

***Quinto.***– Notificar la presente Orden a los interesados, así como al Ayuntamiento de Alkiza, a los Departamentos de Cultura y Ordenación y Promoción Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

***Sexto.***– Publicar la presente Orden de inclusión en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda.***– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de mayo de 2007.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

# I. ERANSKINA

Mugaketa

a) Mugaketaren eremua.

Mugaketak eraikina bera eta haren ingurumaria hartzen ditu. Horrenbestez, eremuak muga hauek ditu: SW-ra lerro irregular bat, fatxadatik 8 eta 12 metrora bitartean, alde horretatik doan bidearekin bat. Gune horretan baserriko ate-aurreak daude. SE-rantz, alde horretako herri-bidetik 5 eta 1 m-ra dagoen lerroa. Gune horretan eraikinera sartzeko eskailera okerra dago. NE-ra, fatxadatik 3,5 m-ra doan lerro paralelo bat, ondoko Kabela baserriraino iristen dena. Azkenik, NW-ra, fatxadatik 4 eta 14 m-ra bitartean dagoen lerro bat, alde honetako eustormaraino iristen dena.

b) Mugaketaren justifikazioa.

Proposatzen den mugaketa justifikatzen da Lete baserriko ingurumariko ingurumen-balioak eta ikuseremua babestu behar direlako, Alkizako herrigunean baitago, bertako San Martin auzo txikian. Inguruaren mugaketak -beharrezkoa baita ondarea behar bezala babesteko eta balioesteko- zera dakar, baserriaren ondoko inguruak ere babestea, alegia, inguruko lurrak eta baserrirako sarbidea, horrela baserriaren bereizgarritasunak kontserbatzeko. Hori dela eta, mugaketak ez du soilik baserriaren eraikina hartzen, ezpada ere haren ingurumaria.

# ANEXO I

Delimitación

a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye, por un lado, el propio edificio en sí y, por otro, el entorno que lo circunda. Así, el área de la delimitación queda definida por los siguientes límites: al SW una línea irregular distante entre 8 y 12 m de la fachada y que linda con el camino público adyacente que discurre por este lado. En este espacio se incluyen las antepuertas del caserío. Al SE una línea distante entre 5 y 1 m del camino público que discurre por este lado. En este espacio se incluyen las escaleras curvas de acceso al edificio. Al NE una línea paralela situada a 3,5 m de la fachada y que alcanza al vecino caserío Kabela situado en este lado. Finalmente al NW una línea situada entre 4 y 14 m de la fachada y que alcanza el muro de contención situado en este lado del caserío.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales del entorno del caserío Lete situado en el casco rural de Alkiza, en su pequeña barriada de San Martín. La delimitación del entorno, necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien, implica la protección de los espacios adyacentes al caserío, ocupados por los terrenos circundantes y acceso al edificio, a fin de preservar el carácter propio del caserío. Por ello, esta delimitación incluye no sólo la edificación del caserío propiamente dicha sino también el entorno que lo rodea.


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
LETE BASERRIA
BABES EREMUA
ENTORNO DE PROTECCIÓN
Lurraldea / Territorio:
GIPUZKOA
Udalerria / Municipio:
ALKIZA
Data / Fecha: 08/11/2006
Eskala / Escala: 1:1500
ESKALA / ESCALA
20 0 20 40 M

## II. ERANSKINA

Deskribapena

Oinplano angeluzuzena duen familia bakarreko baserria, 17,5 x 18,5 m-koa, hiru solairu eta ganbara dituena, eta hiru isurkiko hodi-teiladun estalki zurezkoa. SW-ra jotzen duen fatxadarekiko luzetara dagoen gailurra. Gehiena harlangaitzez egindako perimetro-pareta, zuriz luzitua eta pintatua, salbu eta eraikineko lau fatxadetako harlanduetan. Harlanduzko eskantzuak. Fatxada nagusia simetrikoa da, eta behe-solairuan puntuediko arku dobelatua duen sarbide bat du, fatxadako ardatzarekiko deszentratua. Alboetan hiru leiho harlanduz inguratuak. Lehenengo solairuan lau leiho-zulo ditu, harlanduz inguratuak baita ere. Lehenengo eta bigarren solairuen artean armarria dago, fatxadaren erdian eta hauts-babes batean gordeta, eta horren ondoan eguzki-erloju bat. Kasu honetan fatxadako horma-atala harlanduzkoa da. Bigarren solairuan lau leiho daude, harlanduz inguratuak. Pinoian bi leiho ditu, eta beste bi ere bai, harlanduz inguratuak. Azkenik, pinoian baita ere, puntan burdinazko haize-orratza duen gailurra erliebezko gurutze bat duen sekzio karratuko harlanduzko zutoin batean bermatzen da. SE-ko fatxadak, lehenengo solairuaren parean, erdi-puntuko arkua duen sarbide bat du; eta beste bat atalburuduna, estalkitxo batez burutua, sarbidea porlanezko maila oker txikiko eskailera bat duena. Fatxada honetan, sarrerako ateen alboetara, harlanduz inguraturiko beste bi leiho-zulo daude. Bigarren solairuan hiru balkoi daude, burdinazko barandadunak. NE-ko fatxadak sarbide atalburuduna da, zeinetatik behe-solairura igaro baitaiteke. Horren gainean, lehenengo solairuaren parean, harlanduz inguraturiko bi leiho daude. Bigarren solairuaren parean, harlanduz inguraturiko beste hiru leiho. NW-ko fatxadak zimaurtegi eta txerritegi moduan erabilitzen diren hainbat teilape-eranskin ditu. Behe-solairuan erdi-puntuko arku dobelatua dago, eraikinaren barrualdetik soilik ikus daitekeena. Lehenengo solairuaren parean kuku-leiho txiki bat dago.

Eraikinaren egitura behe-solairuko harrizko bi pilaretan eta zurezko beste bitan bermatzen da. Eta horien gainean altxatzen dira ganbararainoko pieza bakarreko lau zutoin-ardatz. Lehenengo solairuko forjatuak soliba erregularrak, simetrikoak eta sekzio handikoak ditu. Lehenengo eta bigarren solairuetako forjatuetan, habeen gainean, soliba erregularrak eta simetrikoak bermatzen dira. Ganbaran, lau zutoin-ardatzak zurezko urkila banatan bukatzen dira, zeinetan eraikinaren teilatua bermatzen baita. Egitura zenbaki erromatarrez markatua dago. Lehenengo solairuan, fatxada nagusirantz irekia, 8 x 7 m-ko egongela dago, aingeru-buruak irudikatzen dituen iztukuzko apaingarriak dituena. Egongelako ateak eta pieza bakarreko oholez egindako tarima ere jatorrizkoak dira.

## ANEXO II

Descripción

Caserío unifamiliar de planta rectangular de 17,5 x 18,5 m, tres plantas y desván, cubierta de madera a tres aguas con teja canal. Gallur perpendicular a la fachada principal de orientación SW. Muros perimetrales de mampostería en su mayor parte, revocada y pintada de color blanco salvo la piedra sillar de las cuatro fachadas del edificio. Esquinales de piedra sillar. La fachada principal, de composición simétrica, posee en la planta baja un acceso en arco de medio punto dovelado descentrado con respecto al eje de la fachada. Tres ventanas recercadas de piedra sillar a los lados. En la primera planta posee cuatro huecos de ventana recercados también en piedra sillar. Entre la planta primera y la segunda se sitúa el escudo de armas, situado en el centro de la fachada, protegido por un guardapolvo, y junto a él, un reloj de sol. El paño del muro de fachada es de piedra sillar en este caso. En la segunda planta se sitúan cuatro ventanas recercadas de piedra sillar. En el hastial posee dos ventanas y otras dos más pequeñas recercadas así mismo en piedra sillar. Finalmente, también en el hastial, el gallur, que termina en una veleta de hierro, se apoya en una columna de piedra sillar de sección cuadrada que posee una cruz en relieve. La fachada SE presenta a la altura de la primera planta un acceso en arco de medio punto y otro adintelado, cubierto con un tejadillo, al que se accede por una escalera de peldaños curvos de cemento. En esta fachada otros dos huecos de ventana recercados de piedra sillar se sitúan a ambos lados de las puertas de acceso. En la segunda planta se sitúan tres balcones con baranda de hierro. La fachada NE o trasera posee una puerta de acceso adintelado por donde se accede a la planta baja. Sobre ella, a la altura de la planta primera presenta dos ventanas recercadas de piedra sillar. A la altura de la segunda planta, otras tres ventanas recercadas también de piedra sillar. La fachada NW posee varias tejavanas-anejos adosados que sirvan para recoger el estiércol y como cochiqueras. En la planta baja existe un arco de medio punto dovelado que es visible solamente del interior del edificio. A la altura de la primera planta tiene una pequeña tronera.

La estructura del edificio se apoya en dos pilares de piedra y otros dos de madera situados en la planta baja. Y sobre éstos se levantan cuatro postes-ejes enterizos que alcanzan el desván. El forjado de la primera planta presenta una solivería regular, simétrica y de gran sección. En los forjados de la primera y segunda plantas vigas se apoya la solivería regular y simétrica. En el desván los cuatro postes-ejes terminan en sendas horquillas de madera en las que se apoya la techumbre del edificio. La estructura está marcada con numerales romanos. En la primera planta, abierto a la fachada principal posee un salón de 8 x 7 m con decoraciones de estuco representando cabezas de angelotes. Las puertas de dicho salón y la tarima de tablas de una sola pieza son también originales.

Letek Erdi Aroko jatorria du; garai horretakoak dira erdi-puntuko arku bat eta behe-solairuko horma-atal gotikoaren zati batzuk, baita XVI. mendeko zurezko zutoin eta habeak ere. Gaur egungo baserria XVIII. mendeko eraikin barrokoa da.

# Justizia Administrazioa

## BARAKALDOKO LEHEN AUZIALDIKO 1 ZENBAKIKO EPAITEGIA

### 3246

EDIKTUA, zenbateko bat erreklamatzeko bideratutako 747/06 hitzezko judizioaren ondoriozkoa.

Barakaldoko (Bizkaia) Lehen Auzialdiko 1 zenbakiko Epaitegia.

Judizioa: 747/06 hitzezko judizioa.

Alderdi demandatzailea: Barakaldoko Zubitxueta kaleko 3. zenbakiko Jabekideen Erkidegoa, Vitoria-Gasteiz.

Alderdi demandatua: Maria Augusta Valiente.

Gaia: diru-zenbatekoa erreklamatzea.

Judizio horretan ebazpena eman da eta honela dio:

PROBIDENTZIA

Epaile-magistratua: Adela Morales Galindo.

Lekua: Barakaldo (Bizkaia).

Eguna: bi mila eta zazpiko apirilaren hamazazpia.

1.– Auzi-jartzaileak lehenago aurkeztutako idazkia batu bekie dagozkion autoei.

2.– Judizioa burutzeko beste egun eta ordu bat jartzea erabaki da: uztailaren 11, 11:45.

3.– Postaz edo bizilekuan bertan demandatuari ediktua jakinarazteko ahaleginak egin diren arren, ezin izan da burutu; beraz, Prozedura Zibileko 1/2000 Legeren (PZLb) 156.4 eta 164. artikuluek xedatzen dutenez, judiziora etortzeko epatuko da demandatua ediktu baten bidez, ediktu hori EHAAn argitaratuaz, eta epaitegi honetako iragarki taulan judiziorako ezarritako egunera arte paratuaz.

4.– Auzi-jartzaileari jakinaraziko zaio, nahi izanez gero, ediktua prentsa ofizialean edo nazio- edo probintzia-hedapeneko egunkari batean argitara daitekeela, baina bere kontura (PZLb, 164. artikulua).

Lete es un solar de origen medieval, época de la que mantiene un arco de medio punto y partes de paños góticos visibles en la planta baja, así como postes y vigas de madera datados en el siglo XVI. La construcción actual es un edificio barroco del siglo XVIII.

# Administración de Justicia

## JUZGADO DE PRIMERA INSTANCIA N.º 1 DE BARAKALDO

### 3246

EDICTO dimanante de juicio verbal n.º 747/06 sobre reclamación de cantidad.

Juzgado de Primera Instancia n.° 1 de Barakaldo (Bizkaia).

Juicio: juicio verbal L2 747/06.

Parte demandante: Comunidad de Propietarios Zubitxueta n.º 3 de Barakaldo.

Parte demandada: Maria Augusta Valiente.

Sobre: reclamación de cantidad.

En el juicio referenciado, se ha dictado la resolución cuyo texto literal es el siguiente:

PROVIDENCIA

Magistrado-Juez que la dicta: D.ª Adela Morales Galindo.

Lugar: Barakaldo (Bizkaia).

Fecha: diecisiete de abril de dos mil siete.

1.– El anterior escrito, únase a los autos de su razón.

2.– Se acuerda señalar nuevo día y hora para la celebración de juicio el 11 de julio a las 11:45 horas.

3.– Habiendo resultado negativas las gestiones realizadas para citar a la parte demandada, después de haberse intentado sin resultado la comunicación por correo y la domiciliaria, procédase, como ordenan los artículos 156.4 y 164, ambos de la Ley 1/2000, de Enjuiciamiento Civil (LECn), a citar a juicio a la parte demandada por medio de edicto, que se fijará en el tablón de anuncios de este Tribunal y en el BOCA, en el primero hasta el día señalado para el juicio.

4.– Hágase saber a la parte actora que, si lo desea, puede publicarse el edicto en la prensa oficial, o en algún diario de difusión nacional o provincial, pero a su costa (artículo 164 LECn).